

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Sanferminetako ajean, zenbait
burutazio trakets **RAMON SOLA > 9**

KOADERNOA

Gure jaiak
NEREA IBARZABAL SALEGI > 17

2019ko uztailaren 20a | XIII. urtea • 629. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

**BASKET BEATS BORDERS,
BALOIAREKIN MUGAK URRATUZ > 4** Arrate REMON





**Basket Beats Borders, baloia lagun
bestela pasa ezin dituzten mugak
urratzen** 04

**Ataungo Gau Ibilaldi Mitologikoa;
gaua, gauezkoentzat** 10

**«Too Good To Go», elikagaiak
alferrik ez galtzeko aplikazioa** 14

E.lkarrizketa: Iñaki Azanza 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Funtsean, XXI.
mendeko monopolioez ari gara
- 08 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Lurraldea, generoa eta
maitasuna
- 09 **Ramon Sola:** Sanferminetako
ajea, zenbait burutazio trakets
- 13 **EXPRAI**
- 16 **Beñat Gaztelumendi:** Woody
Allenen betaurrekoak
- 17 **Nerea Ibarzabal Salegi:** Gure
jaiak
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:**
«Snorkel»
- 21 **Koldo Sagasti:** Bortxatzaileen
defendatzailea, sexu irakasle
- 22 **Amaia Urrejola:** Sexua gara eta
ez sexuaren biktimak



{ datorrena } Iñaki Soto

Funtsean, XXI. mendeko monopolioez ari gara

GAFA delakoei buruzko eztabaidak puri-purian daude. Jakina denez, GAFA akronimo bat da, Google, Amazon, Facebook eta Apple erraldoi teknologikoen akronimoa, hain zuzen ere. Enpresok munduko estatu gehienek baino botere handiagoa dutela esaten da maiz. Erraz esaten da, baina erraz esateak ez du erraz uler daitekeenik ziurtatzen, inondik inora.

Ildo horretan, Amazonen kasuak atentzioa eman dit. Egun bakar batean Jeff Bezosen enpresak estatu gehienek sortzen dutena baino informazio gehiago sortzen du. Informazio hori, gainera, askotarikoa da oso. Azken asteko berriei soilik erreparatuz, Amazonek zentro berri bat ireki du Zaratamon; Bruselak espediente bat ireki dio enpresari konpetentziari buruzko europar legeak hausteagatik; arlo berean eta aldi berean, Berlinekin akordio batera heldu da; telesail berri baten produkzioan sartu da; “Prime Day” delakoan inoiz ez bezalako salerosketak lortu ditu; egun horretan bertan, hain zuzen ere uztailaren 15ean, Minneapoliseko lantokiko langileek sei orduko greba egin zuten.

AMAZONEN HAZKUNDE BASATIA

Enpreson dimentsioa izugarria da, edonondik begiratuta. Beren zabalpen politikoa globala da, inperiala izateraino. Indar ekonomiko itzela dute eta moneta berrien sorrerarekin hori areagotzeko zorrotz ari dira lanean. Duten kultur eraginaren sakontasuna neurgaitza da dagoeneko.

Joe Allenek Amazonek izan duen hazkundera azpimaratu zuen “Jacobin” aldizkarian. Konparazioz, Allenek ondo ezagutzen duen 1907an jaiotako UPS banaketa enpresa, mende baten ostean, 440.000 langile izatera heldu da. Amazonek, ordea, oraintxe bete ditu 25 urte eta 600.000 langiletik gora omen ditu jada. Mundu mailako enplegatzaile pribatu handienetako bat da. Jakina, langile horien baldintzak izugarriak dira. UPSrekin kon-

paratuz, sindikatuak testimonialak dira Amazonen. Horregatik, beren txikitasunean, Minneapolisekoa bezalako borroka garrantzitsuak dira. Izan ere, katebegirik ahulena izan arren, langile horiek zergen alorrean estatu handiek izan ez duten adorea izan dute.

Amazonen hazkundera ezin da soilik tamainaren ikuspuntutik aztertu, ordea. Internet bidezko komertzioan gastatzen den dolar bakoitzetik erdia Amazonen etekinera doa. Merkatuen ikuspuntutik, liburuen esparrutik elikadurara igaro da, telebista ekoizten du, hodei-konputazioan mundu mailako zerbitzari handienetakoa da, etxerako laguntzaile adimendunen artean nagusi da... Horrek kezka eragin du ez soilik lehiakideen artean, baita mundu mailako merkatuaz arduratzen diren erakundeetan ere.

Internet bidezko komertzioan gastatzen den dolar bakoitzetik erdia Amazonera doa. Horrek kezka sortu du lehiakideengan, baita mundu mailako merkatuaz arduratzen diren erakundetan ere

POSTKAPITALISMOAREN DISTOPIAK ETA ABAR

«Langileei behar bezala ordainduz gero ez al luke Amazonek etekin nahikorik aterako?» galdera logikoa da. Erantzun zuzena baietz da, ziur asko. Ikusi dugunez, ordea, galdera horri «hornitzaileei prezio egokia ordainduz gero» eta «toki bakoitzean gainontzeko enpresen zergak ordainduz gero» bezalako galderak ere gehitu behar zaizkio. Izan ere, gaur egun zital jokatzen duen alor bakoitzean zuzen jokatuz gero, ez luke horrelako hazkunderik izango hain tarte txikian, ezta merkatuan gaur egun duen nagusitasuna ere, ezta duen indar finantzarioa ere. Hori ordea, ez da berria, ez da teknologikoa. Hori monopolioa da. •

PALESTINA

Basket Beats Borders, baloia lagun bestela
pasa ezin dituzten mugak urratzen

 **JENDARTEA** / Koldo Sagasti

Uztailean Basket Beats Borders ekimeneko gazteak Euskal Herrian ibili dira. Proiektuak Beiruteko errefuxiatuen kanpamendu batean du sorburua eta jatorri ezberdinetako neskak biltzen ditu saskibaloia- ren inguruan, bizi duten bortizkeria testuinguruan elkarbizitza eta aisialdi alternatiba bat eskaintzeko.



Uztaileko lehenengo asteetan Basket Beats Borders ekimeneko gazteak Euskal Herriko hainbat txokotan bisitan ibili dira. Proiektu horrek Beirut Libanoko hiriburu-ko Shatila errefuxiatu kanpamenduan du sorburua eta jatorri ezberdinetako neskak biltzen ditu saskibaloia- ren inguruan, bizi duten bortizkeria testuinguruan elkarbizitza eta aisialdi alternatiba bat eskaintzeko. Azken egunotan, gurean egindako hamaika erakustal- ditan, euren kirol jardunaz gain, emakume errefuxiatu

gazteen erreallitatea ere ikusa- razi dute. Shatila, Sabrarekin batera, il- tzatuta dago gure oroimen historiko kolektiboan, 1982an Beiruteko mendebaldeko erre- fuxiatuen kanpaleku horietan Falange Libaniar Kristauak eta Israelgo Armada sionistak egin zuten sarraski ankerra- rengatik. Irailaren 16a zen eta, Ariel Sharon komandante isra- eldarrak gidatutako operazio- an, Libanoko milizia kristau- falangistak milaka erbesteratu palestinarren bizitokian sartu ziren PAE Palestina Askatzeko Erakundearen ekintzaile talde bat atzemateko aitzakiarekin. Hogeita hamar orduz, labanez,

Shatila errefuxiatuen kanpamenduan sortu zen Basket Beats Borders ekimena. Jatorri ezberdinetako neskak biltzen dira saskibaloia- ren inguruan, bizi duten bortizkeria testuinguruan elkarbizitza eta aisialdi alternatiba bat eskaintzeko. Arrate REMON

pistolez eta aizkorez armatu- tako erasotzaileek, Armada sionistaren sostengu milita- rrarekin, triskantza odoltsua gauzatu zuten kanpamenduko biztanle zibil babesgabeen kontra.

SARRASKIEN ITZALEAN HAZI

Milaka errefuxiatu palesti- nar –gehienak emakumeak, haurrak eta edadetuak– erail, bortxatu, torturatu eta mutila- tu zituzten, tropa sionistek sa- rraskiaren agertokia argizta- tzen zuten bitartean. Iturri ezberdinek kopuru kontra- jarririk eman bazituzten ere, Gu- rutze Gorriak kalkulatu zuen oldarraldian 3.000 pertsona

inguru erail zituztela. Etxeko animaliak ere ez ziren libratu falangisten odol egarritik. Hainbestearainokoa izan zen masakreak nazioarteko iritzi publikoan sumina eragin zuen eta Nazio Batuen Erakunde-aren Batzar Nagusiak «genozi- dio» deitu zion errefuxiatu pa- lestinarren hilketa ikaragarri hari. Egungo Shatilako gazteek 1982ko sarraski hura zuzenean bizi ez bazuten ere, pasarte historiko odoltsu hark baldin- tzatutako gizartean hazitako- ak dira. Halaxe azaldu dio GAUR8ri Oihana Alberdi Elo- rriaga ekintzaileak, Basket Be- ats Borders ekimena Euskal

Herrira ekartzeko arduradunak. Ekintzaile bizkaitarra 2015ean iritsi zen Beiruteko errefuxiatuen kanpalekura irratigintza proiektu baten eskuetik eta bertan ezagutu zuen Palestine Youth izeneko kirol kluba. Alberdiren hasierako asmoa errefuxiatuen ahotsa zabalduko zuen irratia proiektua eratzea zen, baina kirol ekimenak hunkituta, gurera ekartzeko eta ikustarazteko lanetan sartu zen buru belarri, eta horrelaxe sortu zuen, beste ekintzaile italiar talde batekin elkarlanean, Basket Beats Borders egitasmoa.

SIRIAKO IHESLARIAK

Hasiera batean Italiara eramane zuten biran ekimena, eta, azkenik, buruhauste askoren ondoren, Euskal Herrira ekartzea ere lortu dute. Alberdik azaldu du Shatila Nazio Batuek 1948an erbesteratutako errefuxiatu palestinarrentzat behin-behinean egokitutako kanpamendu guztien tankera-koa dela. Kilometro koadro bateko azalera dauka eta bertan 28.000 lagun inguru bizi dira. Azken 71 urteotan esparruko populazioak gorantz egin duen heinean, eraikuntzak ere gorantz hazi dira.

Gaur egun azpiegiturak eskasak eta urriak dira biztanle kopuru horren gutxieneko beharrak asetzeko eta, ondorioz, bizi baldintzak latzak dira. Egoera, gainera, kaskartu egin da azken urteotan, Siriako gatazka armatutik ihes egindako errefuxiatu gehiago iritsi direlako bertara eta eurentzako hala moduzko etxebizitzak eraiki behar izan dituztelako.

Gainpopulazioaren ondorioz, etxadien arteko esparru gero eta murriztagoa da eta testuinguru horretan nekez topatu daiteke aisialdirako



edota kirol jarduerarako tokirik, are gutxiago saskibaloian ganoraz aritzeko lekurik.

KIROLA, ALTERNATIBA

Bestalde, egoera ekonomiko latz horretan, mutilek bereziki, oso gaztetik uzten dituzte alde batera ikasketak, familia aurrera ateratzeko moduko lan bat aurkituko dutelakoan.

Oihana Alberdi eskuinean, Libanotik Euskal Herrira etorritako gazteekin hizketan. Arrate REMON

Baina ezinean aritzen dira. Libanon bizi diren erbesteratu palestinarren estatus legala berezia da: ez zaizkie onartzen herritartasun eskubide beteak eta, besteak beste, zenbait unibertsitate ikasketetan edota lanbidetan aritzea galarazita daukate. Hortaz, langabezia tassa oso altua da errefuxiatuen artean. Gauzak horrela, kirol

jarduera ez da Shatilako gazteen lehentasunetako bat.

Nolanahi ere, 2017an Basket Beats Borders ekimena sortu zuten, errefuxiatu eremuko neska-mutilei aisialdiko alternatiba bat eskaintzeko. Alberdiren nabarmendu bezala, familia askok ahalegin berezia egin dute seme-alabei aukera hori eskaintzeko, elkartzeko aukera emateko. Ez da erraza, kanpalekuan ez dagoelako kirolean aritzeko azpiegiturarik, eta kanpora atera behar izaten dute: kantxak alokatu, neguan aire zabalean entrenatu...

IA EZIN MUGITU

Hala eta guztiz ere, saskibaloia indargune bat izan da gazte horientzat, aukera eman baitie egunerokotasun bortitzetik aldentzeko, eta esparru hori jatorri ezberdinetako neska-mutilen artean elkarbanatzeko. Izan ere, Shatilako taldean mutil zein neskak aritzen dira: errefuxiatu palestinarrek ba-

UNERIK HUNKIGARRIENA, ALTSASUN

Euskal Herrian batetik bestera ibili diren bi asteetan gazteek hamaika txoko bisitatu dituzte bertako taldeekin batera saskibaloia erakustaldiak egiteko. Guardia, Bergara, Arrasate, Bera, Mutriku eta Donostia bisitatu dituzte, eta bestelako jardueretarako tarteak ere izan dute: Berrizen egun osoko jardunaldi internazionalista antolatu zieten; Orion, traineruan arraunean ibili ziren arabiarrak; Gasteizko Errekaleor auzo askean argazkilaritza, antzerki, horma-irudigintza edota clown tailerrak egin zituzten; Gasteizen, halaber, Araski

saskibaloia taldekoekin entrenamendu saioa egin zuten, eta Adurtza auzoko jailetan saskibaloia erakustaldia; Laidako hondartza zein Gaztelugatxerako bisitez ere gozatu zuten; Bilbon Unamuno klubaren eta Bizkaiko zein Euskal Herriko federakundearen errekonozimendua jaso zuten.

Bidaiaiko momentu hunkigarrienetako bat Altsasun bizi izan zuten, bertan herriko gazte errepresaliatuen senitartekoen elkarretaratzean parte hartu eta elkarri elkartasun keinuak adierazteko parada izan baitzuten.



tzuk, Siriatic azken urteotan etorritako iheslariak bestek, eta Beirut inguruko auzunee-tako gazte libanoarrak azkenik.

Majdi Majzoud taldeko entrenatzailea da Shatilatik etorri den kideetako bat. Azaldu du proiektuaren hastapenak ez zirela errazak izan, errefuxiatuek, euren egoera legala dela-eta, ez daukatelako mugen gainetik mugitzeko erraztasun handirik, eta nekez lortzen dituztelako bidaiatzeko baimenak.

Ezinbestekoa izan da Oihana Alberdiren eta egitasmoa Italiara eramateaz arduratu diren ekintzaileen laguntza administratiboa, sekulako buruhaustek eragin baitituzte hamazazpi errefuxiatuen taldea Libanotik atera eta Euskal Herrira ekartzeko gainditu behar izan dituzten traba legalak. Majzoud beraren familia Akkakoa da, egungo Israelgo kostaldeko iparraldekoa, eta 1948an bortxaz bota zituzten euren jaioteritik. Haren aitak hamar urte zituen Libanoko hegoaldeko errefuxiatuen

kanpalekuetara ihes egin behar izan zuenean.

ESKOLATIK ETXERA

Hantxe jaio zen entrenatzailea, eta berak ere hamar urte zituen Sabra eta Shatilako sarraskien lekuko izan zenean. Orduan, Majzoudek kontatu digunez, triskantza gertatu zen leku zehatzetik bostehun metro eskasetara bizi ziren, eta bere begiekin ikusi zituen Israelgo Armadako tankeak eta helikopteroak, eta nola jaurtitzen zituzten bengalak eremua argiztatzeko, milizia falangistek euren ekintza odoltsua burutu zezaten.

Azken egunotan Euskal Herrian egindako erakustaldietan, euren kirol jardunaz gain, emakume errefuxiatu gazteen errealitatea ere ikusarazi dute

Egungo Shatilako gazteek 1982ko sarraskia zuzenean bizi ez bazuten ere, pasarte historiko odoltsu hark baldintzatutako gizarte batean hazitakoak dira

Basket Beats Borders ekimenak indargune bat eman die gazte errefuxiatuei, batez ere neskei, ahalduz. Arrate REMON



Dena den, Majzoudek ohartarazi du bere kasua ez dela berezia, errefuxiatu guztiek dituztela saminezko familia-istorio lazgarriak, baita saskibalo taldeko jokalariek ere.

Neska horietako askorentzat errefuxiatuen eremutik kanpo bidaiatu duten lehenbiziko aldia izan da. Afaf jokalaria palestinarra kontatu du lehen eskolatik etxerako bidea besterik ez zuela egiten; orain, aldiz, saskibaloia ahalbidetu dio edonora bidaiatu ahal izatea eta jende berria ezagutzea. Rawan jokalaria aitortu du kanpamendutik atera den lehenbiziko aldia izan dela.

Hamabost eguneko egitarau oparoa esperientzia aberasgarria izan da, dudarik gabe, euren errefuxiatu kondizioa tarteko mugak nekez zeharkatu ditzaketen neska horientzat. Baina ekimenak bestelako mugak urratzeko ere balio izan du, aurreiritzien mugak hain zuzen ere. Euskal Herrian zehar egindako bidaiarekin, saskibalo erakusketa egiteaz gain, emakume gazte

errefuxiatuen errealitatea ere ikusarazi nahi izan dute. Halaxe azaldu du Oihana Alberdi antolatzaileak. Haren esanetan Basket Beats Borders ekimenak indargune bat eman die gazte errefuxiatuei, batez ere neskei, ahalduz. Neska horiek sekulako indarra daukate eta hori Euskal Herrian ezagutarazi nahi zuen, emakume arabiarren inguruan ditugun estereotipo eta aurreiritziak desmuntatzeko.

RASTADUN EUSKALDUNA

Baina, bestalde, ekintzaile bizkaitarrak aitortu du bestelako muga kulturalak ere urratu behar izan dituela egitasmo hau aurrera ateratzeko. Izan ere, Shatilara iritsi berritan Alberdi bera pertsona guztiz arrotz eta deigarria zen bertakoentzat, emakume mende-baldarra izateagatik eta, batez ere, bere itxurarengatik –1,80 metroko altuerako neska puska da, gerrirainoko koloretako rastak dituen, oinetatik leporainoko tatuajeak, piercingak aurpegian, ahots urratua...–.



Libanotik etorritako nesketako askorentzat errefuxiatuen eremutik kanpo bidaiazen zuten lehen aldia izan da Euskal Herria ezagutzeko aukera eman diena.
BASKET BEATS BORDERS

Berriztarrak kontatu du hasiera batean, bere burua aurkeztarako orduan, muga estetiko eta kultural horiek ere gainditu behar izan zituela hangoen konfiantza bereganatzeko, baina mugak bi norabidetakoak izan daitezkeela; eta mugak, hain zuzen ere, urratzeko daudela.

BUROKRAZIA ETA DIRUA

Shatilako familien konfiantza irabazita eta proiektua sinestazita, ordea, bestelako mugak aurkeztu zitzaizkion Alberdiri. Betetik, ekonomikoak, modu autogestionatuan garatu baitu ekimena, eta tamaina horretako erronka bati heltzeko neurri bereko diru bilketa egin behar izan baitu: besteak beste, kontzertuak, elkartasun afariak edota material salmentak antolatuz.

Bestetik, muga burokratikoak, taldekideentzako gonbidapen ofizialak lortu behar izan zituztelako, logistikaren justifikazioa, eta bestelako betebeharrak legalak, areagotu egiten direnak bidaiariek errefuxia-

Familia askok ahalegin berezia egin dute seme-alabei saskibaloian jokatzeko aukera emateko. Kanpalekuan kirolean aritzeko tokirik ez dagoenez, kanpora atera behar dute

Afaf palestinarrek kontatu du lehen eskolatik etxerako bidea besterik ez zuela egiten; orain, aldiz, saskibaloia ahalbidetu dio edonora bidaiatu ahal izatea eta jende berria ezagutzea



tu estatusa daukatenean; eta izapide horiek guztiak egitura legala duten erakundeen bitartez egin behar dira. Nolanahi ere, hilabete askotako lan eskergaren ostean, eta lagun askoren babesarekin, azkenik lortu du muga horien guztien gainetik elkartasun ekimena Euskal Herrira ekartzeara.

Majzoudek adierazi du esperientzia oso aberasgarria izan dela nesKentzat eta berarentzat arlo pertsonalean, sekula bizi gabeko esperientziez gozatu ahal izan dutelako.

Baina, era berean, baliagarria ere izan dela nabarmendu nahi izan du. Izan ere, elkartasuna partekatzeak aukera ere izan dute. Euskal herritarren harrera abegikorra jaso duten neurri berean, bertako errealtatearen berri ere izan dute; Altsasuko gazteen kartzelatzearen aurkako protestaldian parte hartu zutenean, Erreka-leor auzo askean egin zuten egonaldian, edota euskal selekzioaren errekonozimendua jaso zutenean, kasu; eta hori guztia ere Libanora bueltan eramango dute.

ESKER ONEKO HITZAK


Esker oneko hitzak izan ditu, bereziki, Tel Aviveko Maccabi saskibaloia talde israeldarraren aurkako boikot kanpaina bultzatzen duten ekintzaileentzat, ekimenak sionismoaren ilogikotasunaren erroetara jotzen du-eta. Ez baita inolaz ere logikoa apartheid erregimen baten kirol enbaxadoreek normaltasun osoz parte hartzea Europako lehiaketetan, eta bertako erakunde eta hedabideen onespina izatea, kirolari palestinarrek askatasunez mugitzeko hainbeste traba dituzten bitartean.

Itzaropentsu esaten du Majzoudek ekimen honek jarraipena izan dezakeela etorkizunean; saskibaloia tresna bat izan dadin herrien arteko elkartasun sareak josten jarraitzeko, pairatzen duten apartheid egoeraren ilogikotasuna azalarazteko, eta bereziki, emakume errefuxiatuen indarra ikustarazteko.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Lurraldea, generoa eta maitasuna



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

Arkitektura, hirigintza eta maitasuna elkar loturik daudela entzuteak harridura sortzen du, arkitekto izan edo ez. Gaian sartu orduko, aldiz, harrigarria gertatzen dena da nola ez diren lehenago gaiok elkarrekin arakatu –eta zerk eragin duen hori horrela izatea–.

Haragiaren politika –generoa, sexualitatea eta maitasuna– gorputzaren ikerketa lerroa da, batik bat antropologia, filosofia eta psikosozial alorretatik aztertzen dena. Arkitektura eta eraikuntza munduak, bereziki maskulinoak izaterakoan, azken hamarkadotan generoak nola baldintzatu dituen begiratzeak ekarpen handiak ekarri ditu, klase erdi eta altuko gizonen pentsamendutik zernolako hiri eta eraikin ereduak sortu diren azaleratzeko. Generoaren ikus-

pegiak argitaratu du, adibidez, hirien erabilera-zonakatzea autoa eta lana etxetik kanpo dituztenen profilean oinarriturik dagoela, gainontzeko egoerak desagerraraziz, edo familia egiturak zenbateraino arautzen duen gaur eguneko etxebizitza antolaketan –eta zeinen gutxi dagoen etxea garbiketara egokiturik–. Horrekin guztiarekin esan nahi da eraikin edo auzo baten eraikuntzaren atzetik ideologia bat dagoela, pentsatzeko modu zehatz baten errealitate materikoan bizi garela. Eta pentsamendu hori banaketa sexista eta gizonaren bote-re lekuarekin harremanean dagoela. Gorputz normala izan da espazio eta objektuen funtzionaltasun arauen funtsa, eta gainontzeko gorputz eta egoerei ez zaie lekuri edo pentsamendurik eskaini. Berrikuspen behar handiak azaleratu ditu generoaren ikuspegiak arkitekturan ere.

Eta maitasunak, zein ekarpen propio ditu? Jakin, UEU eta Usurbilgo Udalak «Maitasuna politikoa da» izenburuarekin joan den astean ikastaroa antolatu zuten, eta bertan kale eta etxeek maitasunarekin dituzten harremanak eta uztarketak azaleratu zituzten. Maitasunak pertsonaren intimitate handiko esparruak biltzen ditu, eta intimitate hori besteekin partekatzen dugu, baina ez edozein harremanen bidez: intentsitate handikoekin, bizipen bitala da. Hain gurea den harreman-modua izanik, ezinezkoa da maitasunaren ulerkera batek intimitatearekin loturan den espazio bat eraikitzean eraginik ez izatea. Oso gureak sentitzen ditugun espazioetan eragin behar deneko uneeetan –etxea eta lurraldea–, gorputzarekin pentsatzen dugu, eta maitasuna ulertzeko modua islatu-rik gelditzen da arkitekturan. Maite dugun etxean edo lurraldean aldaketa bat ezarri behar denean, transformatzeko aukerak maite dugunarekiko harreman mota birpentsatzera behartzen gaitu; batzuek kontrol harreman bat ezartzeko guraria izango dute, besteek babesekoa, edo apropiatziarokoa, edo konfort maila ez gutxiagotzeko mugimenduek aginduko dute. Orduantxe azaleratuko da maitasun eredu bat eta horren baitan eragingo dugu. Arkitekturak hori jaso eta intimitateari forma emango dio, materia bilakatuko du.

Maite duguna eraldatzeko lana da arkitektura eta hirigintza, eta, ariketa indibidualean zein kolektiboan, maitasunarekin loturan jartzen gaituen ekintza. Horrenbestez, arkitekturako espazioak eta lurraldearen eraikuntzak ere erromantizismoz beterik daude. •

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Sanferminetako ajean, zenbait burutazio trakets

Surrealismoak goitik behera bustitako jaiak dira sanferminak. Aje ederra uzten dute, baina burutazio eta ondorio ugari ere bai. Finean, errealitatea ulertzeko beste modu bat besterik ez omen da surrealismoa.

–**Alkate-ohia, airean jauzika:** Bolo-bolo ibili da bideoa. Parrandazale batzuek Joseba Asiron kalean topatu eta gogoz manteatu zuten, txarangak “Volveremos” (Itzuliko gara) jotzen zuen bitartean. Txantxetan hartu zuen berak, baten bati balentriak ondorio fisikoak utziko zizkiola esanez, baina serio hartu beharrekoa da pasartea, beste inon ez baita ikusiko alkate ohi bati horrelako omenaldi herrikoi jatorrik. Ondarea da Asiron, baina ez ondare historikoa, etorkizunerakoa baizik. Zain dezagun (manteatzean ere bai!).

–**«A mordiscos y a patadas»:** Ikurrina udaletxean ager ez zedin indarkeriari heldu zioten agintariek, baina, minutu gutxian, askoren begietara erasotakoak erasotzaile gisa azaltzea lortu zuten. Surrealista izan zen gezurrari oihartzun berezia emateko «a mordiscos y a patadas», Cicatriz taldearen hitzak erabili zituela

Fermin Javier Alonsok, Navarra Suma koalizioko zinegotzi gazteak. Fatxak dira oso, baina, batzuen kasuan behintzat, tontoak batere ez.

–**Poliziak zaldiz, baina ez kargatzeko:** Frankismo gordinetako dirudien irudia izan da poliziakide zaldunena, baina kontuz interpretazio okerrekin. Ez dira horrela jantzi Txilen bezala kargatzeko, ez eta 1978ko mamuak berpizteko, familia *selfie* ugaritan agertzeko baizik. Berdina egin dute “Juan Sebastian Elcano” Armadaren eskolako itsasontziarekin Getarian edo martxoan “Juan Carlos I” gerra-ontziarekin Getxon. Garai batean ikaratzekoa zena jendea liluratzeko egiten dute egun, erakartzeko, beren seduzitzeko modua baita.

–**San Fermin gehiegi ikusten denean:** Oraindik NO-DOKoagoa da balkoi ugaritan ikusitako San Fermin

santuaren irudia. Katolizismoa sasoiko ez dabilela jakinda, segur aski egun ez daude lehen baino *estampita* gehiago, baina, bestelako ikur eta aldarrikapenen faltan, errazago ikusten dira. Altsasuko gazteen aldeko kanpaina indartsua salbu, hor nonbait galdu dira bidean pegatina, kartel, elastiko eta lelo irudimentsuak.

–**Errekoleten plazako mojak dira Erregimena:** PSN-ren mugimenduen harira, egun Erregimena zertan den hausnartzen ari ginela, Errekoleten plazan argitu ziguten: bertako komentuko bederatzi mojak herri jai-gunetik pasa diren milaka eta milaka gazteen gainetik dira eskubide mailan. Eskerrik asko gogoratzegatik!

–**Kalejira hutsa baino askoz gehiago:** “Multikulturismoa” hitz polita baino askoz gehiago dela frogatu zen azken eguneko kalejiran. Integrazio lan handia antze-

Eguzkipekoak «UPN kanpora!» hasi eta itzalpekoek txistuka baina irribarre zabalez erantzutean, iruditu zait Asironen aldeko «Itzuliko gara» harekin asaldatuago zirela

man dut ekimen horren antzean: beren onena eman diote jaiari 62 komunitate eta elkartek. Ondoan nuen emakumeak, ordea, hauxe esan zien bere kuadrillakoei, gazteleraz: «Goazen hemendik, honek ez du-eta sanferminekin zerikusirik». Udal agintetik kanpo ere, bada zertan lan egin, norekin eta noren aurrean.

–**«UPN kanpora!» lelotik haratago:** Sanferminetako surrealismoa zezen plazako binomioan adierazten da beste inon baino hobe: Iruñea koloretsua eta zuri-beltezkoa, euskalduna eta erdalduna, Aldaketa eta Erregimena aurrez aurre erromatarren zirku borobil itogarrian. Eguzkipekoek “UPN kanpora!” oihukatuz agurtu zituzten itzalpekoak; txistuka baina irribarrez itzalpekoek eguzkipekoak. Eta iruditu zitzaidan Asironen bideoaren “Itzuliko gara” harekin asaldatuago zeudela. •

GAUA, GAUEZKOENTZAT

Amagoia Mujika Telleria

Gero eta jendetsuagoa da Ataungo Gau Ibilaldi Mitologikoa, gaua gauezkoentzat izan arren, jakin-mina pizten duelako egunezkoen artean ere. Joxe Miel Barandiaranek bildutako istorioek bizia hartzen dute basoan barna; ahozko transmisioaren hariari magiaz tira eginez.

Ataungo Gau Ibilaldi Mitologikoak zortzigarren edizioa osatu du aurtentzen –iazkoa bertan behera geratu zen eguraldiagatik–. Mila eta berrehun pertsonatik gora, bi taldetan banatuta, Ataungo basoan barna ibili ziren gauez, hiru kilometroko bidean. San Gregorio auzotik herriko plazara, hiru bat orduko esperientzia magikoa.

Ataun Gipuzkoako herririk luzeena da, 14 kilometroko luzerarekin. Gau Ibilaldi Mitologikoaosatzen duten hiru kilometroak ezin dira ohiko neurritz neurtu. Bereziak dira, beteak, aspaldiko kontuak eta betirako geratuko direnak erakusten dituzte. Lastargiz eta kriseiluz argitzen den bideak espero ez duen tokira darama bisitaria. Errekan eserita lamiak harrituta begiratzen dute normalean bakartiak diren bazter horietan pilatutako jendea. Eta Tartalo ere aztoratuta dabil, hainbeste begi bere gainean iltzatuta egoteak haserrarazi egiten du. Sorginek ere egonezinez begiratzen diote jendearen joanari eta akerra sekulakoa begitantzen da iluntasun magiko horretan.

Izan ere, gaua gauezkoentzat da, baina egunezkoak ere jakin-mina izan eta eguzkia begira ez dagoe-nean zer pasatzen den ikusi nahi du. Horregatik edo, urtez urte arrakastatsuagoa gertatzen ari da Jentilbaratza Kultur Elkartek Barandiaran Museoaren laguntzarekin antolatzen duen Gau Ibilaldi Mitologikoa. Hasieran ez bezala orain sarrerak behar dira parte hartzeko –doakoak dira– eta datua esanguratsua da: sarrerak sarean eskuragarri jarri eta berrogei minutuan agortu ziren. Baina, tartean, sarea erorita egon zen hogeia minutuz, bigarren minutuan seihun pertsona aldi berean saiatu baitziren sarre-rak lortzen. Hortik kontuak atera zer-nolako oihartzuna lortzen ari den ekimena.

Lehen urtean txanda bakarrean laurhun bat lagun bildu ziren. Bigarren urterako, berriz, bi txanda antolatu zituzten, seihun bat lagun guztira. 2015.

urtean, artean sarrerarik gabe, 1.400 lagun gerturatu ziren bi txandatan banatuta. Horregatik erabaki zuten antolatzailleek sarrerekin hastea eta bisitarien kopurua mugatzea.

Esanda bezala, aurtentzen zortzigarren izan da eta hirugarren Mitoaldiaren barruan kokatu da. Euskal mitologiaren inguruko hamar eguneko aldia izaten da Mitoaldia eta hori ere Barandiaran Museoak eta Jentilbaratza elkarteak elkarrekin antolatzen dute.

HERRITARREN BORONDATEZKO LANA

Gau Ibilaldi Mitologikoan berrehun ataundarretik gorak parte hartzen du. Horietatik 110 inguru aritzen dira aktore lanean, eta, gainontzekoak, atzeko lanean. Sei hilabete luzeko prestaketa lana dago ibilaldiaren atzean, guztia borondatezko lana. Gidoia prestatzen hasten dira. Urtero, gidoi desberdina izaten da, betiere Joxe Miel Barandiaranek bildutako materiala oinarri hartuta. Atrezzoak prestatzen ere sekulako lana dago eta benetan moztaroz ikusgarriak ikus daitezke. «Dena herritarren artean egiten dugu. Ez dago profesionalik. Handik eta hemendik hartzen ditugu ideiak, Interneten begiratuta, eta ahal bezala moldatzen gara. Makillajean ere lan handia dago. Aktoreak ere ez dira profesionalak, herriarrak dira, eta entsegu asko egiten dituzte. Egia esan sekulako lana dago atzean, herritarrek asko inplikatzeko dira eta emaitza bikaina izaten da», azaldu du Eneko Amundarainek.

Alboko orrialdean, aurtengo Gau Ibilaldi Mitologikoko zenbait une. Sorginen akelarrea, bisitariak lastargiak eta kriseiluak hartuta eta hildakoen arimak noraezean. Argazkiak: Jon URBE | FOKU

Gau Ibilaldi Mitologikoak basoan barna hiru bat kilometroko ibilbidea marrazten du. Bidean, Joxe Miel Barandiaranek bildutako istorioek bizia hartzen dute. Guztia, iluntasun ederrak jantzia

Azken urteotan bisitarien kopurua mugatu behar izan dute. Aurtentzen, 1.200 lagun izan dira bi txandatan banatuta. Atzetik berrehun ataundar baino gehiagoren borondatezko lana dago

du du Eneko Amundarainek, Jentilbaratza Kultur Elkarteko kideak. Ibilaldia bera ez da erraza azpiegiturari begira, basoan barna prestatu behar baitira eszenatokiak eta argiak. Eta horretarako ere badaude herritar mainosoak Ataunen, lana fin egiten dutenak gau hori hain magikoa izan dadin.

Magiatik eta xarmatik harago, helburu jakina dauka Gau Ibilaldi Mitologikoak. «Joxe Miel Barandiaranek sekulako lana egin zuen Ataunen bertako ipuinak eta istorioak jasotzen. Bera buru izanik, herriko beste batzuk ere ari ziren harekin bilketa lanean. Beraiek jasotako hori zabaldu nahi dugu, ez dadin ahaztu. Eta helburu horrekin antolatzen dugu ibilaldia», azaldu du.

Ataun ahaztutako tradizioaren, ipuinen, kondairen eta mitoen aparteko sehaska da, benetan aberatsa. «Hasiera batean pentsatzen nuen hori horrela zela Joxe Miel hemen jaioa zelako eta berak biltzeko lan hori egin zuelako. Baina gero eta gehiago jakin, konturatu naiz Ataun oso berezia izan dela alderdi horretatik. Joxe Miel jaio zenean, Ataunen ia Erdi Aroan bezala bizi ziren, Bilbon zubi zintzilikaria zuten eta Parisen Eiffel dorrea eraikitzen ari ziren garai berean. Ataun denboran harrapatuta bezala zegoen eta sukaldeko giroa, ipuinen giroa, oso bizirik egon da denbora askoan. Uste dut bi aldagaiak elkartu direla hemen, Barandiaran bera eta giro hori. Horri eskerrak, sekulako aberastasuna daukagu Ataunen», gaineratu du.

Amundarainen ustez, «gure arbasoek sekulako garrantzia ematen zioten mitologiari, inguruan zituzten gauzak esplikatzeko zuten era hori zelako. Gure ustez sinismen horiek oso garrantzitsuak dira orain gu zein garen azaltzeko eta ulertzeko».

Hurrengo hitzordu handia azaroan izango Ataunen, bi urtez behin egiten den Jentilen Etorrerarekin. Sarrerak hila-bete lehenago egongo dira eskura.





Patxi Errementariaren ibilerak izan dira aurtengo ibilaldiko gai nagusia. Infernurako ere gaiztoegia omen eta zerura sartzen saiatu behar izan zuen Patxik. Ibilaldia herriko plazan amaitu zen eta, bukatzeko, marmitakoa gauerdia pasata. Horixe, magia hutsa.

Argazkiak: Jon URBE | FOKU





EXPRAI

{

iRRITZIA:



BESTE HERRIALDE BATERA BIZITZERA JOAN,
ETA MAHAI ZABALGARRI BAT ESKURATZEA
BERTAN LAGUNIK ORAINDIK EGIN EZ DUZUNEAN.
HORI DA JARRERA!

EXPRAI
2019

«TOO GOOD TO GO»

Elikagaiak alferrik ez galtzeko eta ingurumenari laguntzeko aplikazioa

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Urtero ekoizten diren elikagaien herenak zaborretara botatzen dira, eta, elikagaiokin batera, ekoizteko erabili diren baliagai eta prozesuak ere, hala nola ura, lurra eta egindako lana. Soberakin handi hori alferrik galtzea gizarte eta ingurumen arazoa da, hondakin horien kudeaketa oso kaltegarria baita, negutegi efektuko isurpen globalen %8 eragiten baititu.

Ahal den neurrian arazo horri aurre egiteko, duela hiru urte “Too Good To Go” ekimena sortu zen. Haren helburua jakiak alferrik ez galtzea eta karbono dioxido isurketak murriztea da. Diotenez, “Too Good To Go” ez da aplikazio huts bat, «elkagaiak alferrik galtzearen aurkako mugimendua» baizik, dozenaka mila *waste warrior* edo hondakinen aurkako borrokalari osatua. Parte hartzeko, aplikazio doako bat prestatu dute, nahi duenak deskargatu eta izena emanda, ekimenarekin bat egin duten saltokiak aurki ditzan; esate baterako, okindegiak, jatetxeak edo fruta-dendak.

Erabiltzaileak, komeni zaion denda aurkituta, «sorpresa-pakete» bat erreserbatu eta aplikazioaren bidez prezio ondo merkean ordaindu ondoren, saltokian jasoko du. Beren saltokietan ekimena abiatu dutenek diotenez, norberaren poltsikoak ez ezik, ingurumenak ere eskertuko du.

Egunero botatzen den elkagai kopurua aldeztu aurretik jakiterik ez dagoenez, ezezagunak dira sorpresa-paketea osatuko duten produktu mota eta kopurua ere, baina bermatuta dago jateko moduko produktuak direla; areago, egune-

Ekoizten diren elikagaien herenak alferrik galtzen dira. Hondakin horien kudeaketa oso kaltegarria da ingurumenarentzat, karbono dioxido isurpenak areagotzen baititu. Elikagai soberakin hori saihesteko, hainbat saltokik, «Too Good To Go» aplikazioaren bidez, jateko moduan dauden elikagaiak bota beharrean, prezio merkean erosteko aukera eskaintzen dute.



an zehar saltzen direnak bezain kalitatekoak direla.

EUSKAL HERRIAN ERE BAI

Europa osoan milaka saltokik eutsi diote elikagaiak alferrik galtzearen aurkako konpromisoari, eta Euskal Herrira ere iritsi da aplikazioa erabiltzeko aukera. Momentuz, dozenaka saltokik abiatu dute, lehenengo Bilbon, ondoren Donostian eta, duela hilabete eta erdi, Gasteizen. “Too Good To Go” mugimenduaren arabera, EA-En 350.000 tona elikagai alferrik galtzen dira urtero, eta aplikazioaren bidez prezio merkean erositako pakete bakoitzak 2,5 kg karbono dioxido isurtzea saihestu lezake.

Gasteizen, harekin bat egin duen fruta-denda kate batera jo dugu. Zenbait frankizia hornitzen dituzten Delika fruta-dendetako langilea da Enara Escobosa, eta denda horietan ekimena abiatzeko arduratu da. Esperientzia horren nondik norakoa kontatu digu.

Duela hilabete pasa abiatu zuten ekimena. Gasteizen lehenak izan ziren, atxikitzea eskaini zietenean, ekimen interesgarria iruditu baitzitzairen. Enarak azaldu duenez, aplikazioaren bidez prezio merkean saltzen dituzten produktuak kontsumitzeko modukoak dira, jakina, bide normaletik saltzen dituztenak bezain onak, baina, akatsen bat izanda, batez ere haien itxuragatik salmentatik erretiratu behar ditzute, eta horrela botatzea saihesten dute. «Kontsumitu daitekeen zerbait ez baztertzea da kontua», dio, eta gainera, «Planetari laguntzeko modu bat da». Orain arte, emaitza onak izan omen ditu ekimenak ezarri duten saltokietan.

Bestalde, elikagaiak jasotzeko, bezeroek beren poltsa era-

maten dute. Izan ere, «ekime-
nak berak horretara bultzatzen
du», haren ardatza ingurume-
naren alde egitea da-eta. Salto-
kiek egurrezko kaxatan jartzen
dituzte produktuak, bestela
bota egingo zituzten kaxetan,
alegia, eta bezeroak kaxak ere
eraman ditzake, ohikoena bere
poltsa eramatea bada ere.

Pozik ageri da Enara orain ar-
teko esperientziarekin, eta be-
zeroak ere hala daudela dio.
Hauek asko diren galdetu dio-
gu, eta berez ekimena mugatua
dela erantzun du. «Ez daukagu
oso soberakin handia, eta ho-
rren arabera da eskaintza. Bi
edo hiru kaxa betetzeko
ematen badu, ondo; bestela,
ahal dena, baztertzeko dagoen
fruta kantitatearen arabera, eta
hori ez da asko izaten». Alegia,
oro har elikagai asko botatzen
dira, baina denda edo jatetxe
bakoitzekoa modu erlatiboan
kopuru txikia da. «Eskaintzen
dugun zerbitzu bat da hau, ez
eskariaren arabera egiten du-
gun zerbait, ez dugu fruta
gehiago erosten soberakin han-
diagoa izateko». Motiboa ez da
errentagarritasun ekonomi-
koa: «Azkenean, elikagai horie-
kin zero irabazi beharrean, bat
irabazten duzu, erosita zeneu-
kan zerbait da, bestela botako
zenukeena, edo etxera eram-
go zenukeena. Baina bai, badu
halako errentagarritasuna, oso
txikia, baina badu».

Inoiz ez dute zenbateko sobe-
rakina izango duten jakiten,
noski. Egun batean bi kaxa
prestatzeko modukoa, beste ba-
tzuetan hiru, eta orduan es-
kaintza zabaltzeko aukera dute.

LEHENENGOA GASTEIZEN

Rita, Delika fruta-denden fran-
kizia bateko jabea da, Gastei-
zen aplikazioa abiatu zuen le-
hen saltokiarena, hain zuzen.
Kateak nolabait esperientzia



Aurreko orrialdean,
aplikazioaren bidez
eskuratu daitekeen
paketeen topatuko diren
zenbait produktu,
salmentatik kenduak,
baina erabat jateko
modukoak. Lerroon
gainean, Rita, Delika
fruta-denden frankizia
bateko jabea.
Endika PORTILLO | FOKU

pilotua egin zuen Ritaren den-
dan eta, Ritak dioenez, bereha-
la konturatu ziren emaitza ona
zela eta bezeroak pozik zeude-
la. Ondoren, Delika kateko bes-
te dendetara zabaldu zuten.

Hilabete eta erdi horren bal-
lantzea eskatu diogu. Atoan
erantzun du: «Oso ona. Egia
esateko, oso ondo joan da». Denda bakoitzak nahi duen
moduan antolatzen du zerbi-
tzua. «Ni etortzen naizenean,
denda atondu eta saltzeko mo-
duan ez dagoena kaxa batzue-
tan uzten dut. Ondoren, pake-

teak prestatzen joaten naiz
apurka-apurka, betiere pakete
bakoitzean askotariko produk-
tuak egon daitezen saiatuz. Azken orduan jendea haien bi-
la etortzen da eta horixe da
dena».

Soberakin guztia saltzen du-
tela dio. Egunero lau bat pake-
te izaten dira, eta egun batzue-
tan presaka ibili behar izaten
du, berehala erosten dituzte-
eta. Bezeroak ere oso pozik
omen daude aplikazioaren bi-
dez egiten dituzten erosketa
horiekin. Badute zerbitzua

puntuatzeko aukera ere, eta
zerbitzua hobetze aldera, “Too
Good To Go” aplikazioak kexak
ere jasotzen ditu, hutsuneak
konpontzeko. «Azken batean,
hau berria da», dio Ritak, eta
berari ere inoiz esan diote zer
eta nola sartzea komeni den,
eta zenbait jarraibide eman
izan dizkiote. «Honi neurria
hartu arte. Ikasi arte, guztia
bezala, ezta?».

Eta badirudi zerbait ikasi
duela: «Ez dugu alferrik galt-
zen denaren kontzientzia iz-
pirik. Hori hemen ikusi dugu
argi: honekin hasi arte ez ge-
nekien zenbat botatzen zen.
Orain konturatu naiz. Lehe-
nengo egunetan, aplikazioa
abiatu genuenean, larritu ere
egiten nintzen alde hori ikusi-
ta». Izan ere, egunean zehar
saltzeko moduan ez zegoena
botatzen joaten zen, eta orain,
dena batera ikusita, «baina,
hainbeste botatzen genuen?»
pentsatzen du.

**«Too Good To Go» aplikazioa «elikagaiak
alferrik galtzearen aurkako mugimendu» bat
ere bada, dozenaka mila «waste warrior» edo
hondakinen aurkako borrokalarik osatua**

**«Ez dugu alferrik galtzen denaren kontzientzia
izpirik. Hori hemen ikusi dugu argi: honekin
hasi arte ez genekien zenbat botatzen zen.
Lehenengo egunetan larritu ere egiten nintzen»**



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Woody Allenen betaurrekoak

Beste norbait izateko grinak mendeen hartzen nau batzuetan, udan batez ere. Ni baino hobea den norbait; norbait exotikoagoa, gogotari emanagoa, beltzara-nagoa, irekiagoa, dibertigarriagoa, bereziagoa, niagoa. Eta mundua zeharkatzen ahalegintzen naiz uztail-abuztuko oporraldi mugatuetan; argazkiak ateratzen ditut Alhambrako iturrietan eta Marrakexeko merkatuetan; Iguazuko ur-jauzietan eta Habanako malekoian; Eiffel dorrea hatz-muturretan sartzen zait oporren eskala lanbrotuan eta behatz-arte hareaz betean Pazifikoa.

Argazkiz betetzen ditut mugikorreko memoriaren mugak: megak eta megak eta megak, harik eta espazio faltak behartuta jada zaharkitutako aurreko urteetakoak ezabatzen ditudan arte.

Norbait berezia izan nahi dut, bakana, eta naizen hori munduari erakutsi. Facebook-en bost minutuero sartuko naiz, naizen ni berri horrek zenbat atsegin dut dauzkan zenbatu nahian. Eta orduan ohartuko naiz nire kontaktu gehienek nire argazki berdin-berdinak dauzkatela beren profiletan; denak igaro direla ni igaro naizen lekuetatik, jaki bila gabiltzan inurri saldoa bagina bezala. Mundua esaten diogun gauza zabal hori hamar, hogeitaz argazki besterik ez direla. Gure berezitasun-ustea ere elkarri kopiatzen diogula. Eta zailtasun geratzen naiz, nire ametsak nireak ote diren benetan edo inbutu-klaseren batek sartu ote dizkidan garuneko zuloan, maiz direpe sargorian lo nengoen bitartean. Batzuetan, nire amets burgesak poltsiko prekario hauen



Allenen betaurrekoen planoek erakutsiko diote munduari zer garen. J.C.RUIZ | FOKU

zuloetatik isurtzen zaizkit. Nire amets ez hitz egiten hasi eta konplexuak soilik ateratzen zaizkit eztarri-zulotik.

Kontsolamendu bakarra daukat: gaitz hau ez dela nirea bakarrik. Ez dela pertsonena ere esklusiboki. Hiriak ere, tarteka, beren buruaz lotsatu egiten dira gurean. Miarritzek G7aren bilera bat hartuko du, munduaren aurrean erakargarri, zabal eta ireki agertzeko. Perimetroa polizia eta arma klase irudikagarri guztiekin itxita, noski. Donostiak ere erakargarri agertu nahi omen du munduarentzat. Ez dakit ze mundurentzat, ordea. Irun eta Hendaia artean furgonetetan klandestinoki bahitzen dituzten migranteak ere mundua izango dira, ezta? Nahastuta egongo naiz akaso; mundua G7ko gorbata-dunak bezain izaki zabal, ireki eta anitza izango da beharbada.

Lehen Paris izan nahi zuen tokian bizi naiz; hiri izateko herriegi eta herri izateko hiriegi den Donostia honetan. Konplexuz betetako Donostia honetan. Woody Allenen betaurrekoen plano miopeek munduari erakutsiko diote zer den, nor garen: zer den ikusi beharrekoa. Haren edizio mahaiak homologatuko gaitu. Lehen Paris izan nahi genuen. Orain New York, Bartzelona edo Londres ere bai. Edozer gauza, garena izan ezik.

Elkarren berezitasunak kopiatuz aterako gara gida turistikoetan. Desiratzen nago iraila iritsi dadin. •

{ koaderno } Nerea Ibarzabal Salegi

Gure jaiak

Badatoz jaiak, gora! Amaitu dira jaiak, eskerrak! Euskal herritar bakoitza bi puntu hauetakoren batean edo bien arteko trantsizioan egongo da une honetan. Zer ote dira jaiak, ez badira geu garen hori bider mila. Txarra eta ona, muturrera eramana. Normala amaierarako jasanezin bilakatzea geure herriaren eta geure buruen bost egunetako berrestea.

Kuriosoak dira eta kontraesankorrak. Txupinazoa. Fiu, pun! Hor daude txosnak, han tabernak, hor txosnetan kontsumitzen ez duen jendea, han txosnetatik irteten ez dena, eta hor daude baita ere txosnek defendatzen dituzten balore bakar bat errespetatu ez arren, bertan kontsumitzen dutenak. Zein gustura aurten txosnetan. Turnorik egingo zenuke? Ez. Elkar ukitzen duten jai eredu desberdinak, alkoholaren salerosketak berdinduak, bestalde.

Kontzertuak eta kontzertu bakoitzak erakartzen duen soziologia. Gazteak, beste herrietakoak, mutilak, neskak. Nortzuk gerturatzaren diren lehen lerrora. Generoaren arabera banatzen diren kuadrillak eta euren kamisetak, eta kamisetetako izenak, sakonki aztertzeak eta esanguratsuak batzuk. Eta non gertatzen diren kuadrillarik ez dutenak, tartean etorkin asko eta asko, horrelako egunetan.

Bazkari herrikoian betiko rolak hausteko ezintasuna. Eskakeatzen direnak eta lan zikina egiten dutenak, “urtean behin da, eta nik egin ezean...”. Seme-alabak zaintzetik libratu diren gizonak baina emakumeak ez hainbeste. “Eta orain nondik zabil-tza?” galdera. Batzuk ez jasatea oraindik, eta beste batzuekin gustura elkartzea aspaldiko partez.

Parrandan espazio bikoitza okupatzen duten mutil gazte taldeak, elkarri bultzaka dantza egiten dutenak –ez dut inoiz ulertuko hau–, neskei gerritik heltzeko ohitura dutenak hitz egiterakoan, mutil zahar-rragoi miresmenez begiratzen dietenak, denak

feministak, noski, baina jakin nahi nuke kuadrilla horietan nor ausartzen den mutil bat gustatzen zaio-larik kontatzera.

Normalean berbarik egiten ez diozun jendea edo normalean berbarik egiten ez dizun jendea agurtzea gauean etilikoki, elkarrizketa sakonak ere izatea agian, eta gero “borde bat zinela uste nuen” esatea elkarri. Beharbada biharamunetik aurrera kasu egiten hastea.

Herriko ekitaldi tradizionala galtzea, edo inoiz ez galtzea, ezer baino garrantzitsuagoa delako zuretzat. Eraldatzen saiatzea, edo beti berdin mantendu dadin borrokatzea. “Hemengoa ez bazara, ezin duzu ulertu”. Ezin duzu ulertu zergatik den super inportantea zezentxo bat plazan askatzea goizero edo dantza honetan bakarrik gizonak parte hartzea. Jai ereduak talkan beste behin, eta egun bakar bateko kontuak familiak hautsi ditzake tradizioa tartean sartzen denean. “Zuk

Badago ilusio bat, lan bat, elkarbanatzeko gogo bat jaietan; purpurina airean eta gauden lekuan egoteaz poztea, ia absurdoraino. Urte osoa iristeko gogoz eta gero oharkabean pasatzen dira

zer defendatzen duzu? Nik gauzen urteroko errepikapen aldaezina historia osoan zehar”. Inork ez du horrela erantzuten, baina. Agian aurten emango zen pausuren bat zuen jaietan, eta ez dakit pozik edo haserre zauden.

Baina badago ilusio bat, lan bat, elkarbanatzeko gogo bat jaietan; purpurina airean eta gauden lekuan egoteaz poztea, ia absurdoraino. Urte osoa iristeko gogoz; gero oharkabean pasatzen dira, eta datorren urtera arte. Gure herrikoak amaitu bezain pronto, “beno, laster Gabonak”, esaten du gure lagun baten amamak. Badute zerbait jaiek, gu bezain inperfektuak izan arren... •

Tourrera joan aurretik egin dugu zita Iñaki Azanza argazkilariarekin. Txirrindularitza izugarri maite duen laguna da, eta hamaika pasadizo ditu kontatzeko. Azken 43 urteotan munduko txirrindularitza probarik garrantzitsuena bertatik bertara jarraitu izan du eta Euskal Herriko bideak ere ondo asko ezagutzen ditu. Txirrindula gainean aritu zen gaztetan eta oraindik ere maite du bizikleta. Eta ibiltzen da. Argazki kamera soinean dela jarraitzen ditu orain txirrindulariak.

1977. urtetik jarraitzen duzu Tourra. Nola hasi zinen lasterketa jarraitzen?


1977an etapa bat Gasteizera heldu zen, eta, gainera, gure herriko Jose Nazabalek irabazi zuen; gure laguna eta Goierri garai hartan bizikletan ibiltzen ginenon eredu zen. Igandea zen, eta goizean jubenil mailako lasterketa bat izan genuen guk, ostean bizikletak hartu eta Olagainera joan ginen, Irurtzun ondoan, eta bertan ikusi genuen bera bakarrik zetorrela; Gasteizera irabazle heldu zen Nazabal.

Bizikletaz joan zineten beraz etapa ikustera.

Goizean gure lasterketa egin ostean joan ginen, bai, bizikletaz. Biharamunean etapa Gasteiztik abiatzen zen eta Goierri osoa gurutzatu zuen, eta Tourra berriz Ordizian ikusteko parada izan genuen. Hori izan zen Tourrarekin gure lehen kontaktu fisikoa.

Hurrengo urtean Estatu frantsesera joan zineten.

1978. urtean hiru lagun batu ginen, eta batek bazuen jada gi-



Gorka RUBIO | FOKU

«Tourra parke tematiko bat bilakatu da»

IÑAKI AZANZA

ARGAZKILARIA

Txirrindularitza eta argazkigintza uztartzen ditu. Argazkiak bildu, lasterketetan argazkiak egin, sarean hedatu... Euskal Herrian txirrindularitzak duen zaletasunaren lekuko, hemengo lasterketak jarraitzeaz gain, Girora edo Tourrera joaten da urtero ordiziarra. 1977tik Tourra zuzenean jarraitzeko ohitura dauka eta azken hamabost urteotan argazkilari profesional bezala akreditatuta egon da. Lasterketa handioi buruzko iritzia eskaini digu.

datzeko baimena. 18 urteko bi eta gazteagoa bat ginen. Orduan pasaporte atera behar zen, paperak egin behar ziren Frantziara joateko-eta. Baina genuen ilusioa eta indarra geldiezina zen. Ate handi bat irekitzen zen abentura eta askatasunera. Garai hartako hamabi edo hamahiru etapa ikusi genituen: Pirinioak osorik, Erdialdeko Mendigunea... Orduan ere Jose Nazabalek parte hartu zuen. Gure lehen kontaktu zuzena izan zen Frantziako Tourrarekin, eta magia horrek guztiak harrapatu egiten zaitu. Zure bizitza arruntean egunero ikusten duzun pertsona bat, Alpe D'huez gainean sekulako beroarekin eta bizikletan iristen ikusten duzunean... Izugarria den iruditeria sortzen du horrek. Gerora oso modan jarri den kontua da Tourrera joatearena, baina garai hartan ere euskaldun asko joaten zen txirrindulari lasterketa handi hau ikustera. Aurten 43 urte egingo ditut Tourrera joaten, baina lehenagotik ere joaten zen jendea ezagutu dut han.

Txirrindularitzarekiko zaletasunari, argazkigintza ere gehitu izan diozu tarte honetan guztian.

Paraleloak diren zaletasunak dira. Baina independenteak ere bai. Nire etxean ez dago futbolzalerik. Gure anaia zaharra, gu baino hamabi urte nagusiagoa dena, 60ko hamarkadan txirrindularia zen, eta, noski, umea zarenean eta anaia eta bere lagunak bizikletan ibiltzen ikusten dituzunean... Garai hartan, zerbait berezia izan zen guretzat. Orduan ez zegoen txirrindularitza eskolarik eta guri pasio berezi bat sortu zitzaigun. Horrela sortu zen.

Azken batean, txirrindularitzarekiko maitasuna nagusien-

gandik jaso dugu; pentsa, 6oko hamarkadan ziklo-kros karrere-tara joaten ginen anaia animatzera. Etxetik jaso dut, 5 urte nituenean anaiak bere bizikletan, erdiko barran, eraman ninduen Euskal Herriko Itzulia ikustera, orduko Bicicleta Eibarresa. Umea nintzen baina pelotoiaren koloreak gogoratzen ditut, jendetza txirrindulariak animatzen. Orduko irudi hori betirako gorde dut gogoan.

Argazkigintza oso gaztetatik landu nuen. Banuen mendizalea zen beste anaia bat, eta Euskal Herrian argazkigintzara dagoen zaletasuna maila handi batean mendizaletasunak piztu duela iruditzen zait. 6oko hamarkadatik aurrera mendian argazkiak egiten zituen anaiak eta ni bere kamerarekin jolas-ten hasi nintzen, eta irudiek emozionatu egiten ninduten. Gaur da eguna argazki zahar bat eskuetan hartu eta informazio asko eskaintzen didana, eta ez soilik gertatzen den ekin-tzarena. Argazkiak eskaintzen dituen bestelako datuen bitartez gizarteaz edo bestelako kontuez asko ikas daiteke.

Argazkilari bezala aritzeaz gain, argazki zaharrak bildu eta gordetzen dituzu. Nola uz-tartzen dituzu bi alorrok?

Gogoan dut txikitan, batez ere Ordiziako "Prueba Villafranca" klasikoan, argazkiak erosten nituela. Nire idoloen hiruzpalau argazki erosten nituen urtero. Bi argazkilari zeuden orduan Ordizian, eta oso erreportaje politak egiten zituzten. Gabikaren-eta garaia zen, eta nik argazkiak erosten nituen. Gimondi ere etorri zen Ordiziara halako baten. Bada, orduko bilduma polita daukat. Eta 70. hamarkadatik aurrera neuk egin ditudanekin batera, Ordiziako karrerako bilduma osatzen jo-

«Gerora oso modan jarri den kontua da Tourrera joaterena, baina garai hartan ere [70eko hamarkadaren amaiera] euskaldun asko joaten zen txirrindulari lasterketa handi hau ikustera. Aurten 43 urte egingo ditut Tourrera joaten, baina lehenagotik ere joaten zen jendea ezagutu dut han»



Zikliamatore.com, Iñaki Azanzak egin eta bildutako txirrindularien argazkiak sarean

Txikitatik izan du argazkietarako zaletasuna Iñaki Azanzak. Txikitan Ordiziako klasikoko argazkiak erosten, bere idoloak zuri-beltzean gordetzen eta anaiaren argazki kamerarekin lehen saioak egiten hasi zen unetik bertatik. Azken berrogei urteotan txirrindularitza errepidean eta bide bazterretik jarraitu du. Berdin ikus dezakezu nazioarteko lasterketa garrantzitsu batean motor gainean argazkiak egiten edota Euskal Herriko edozein karreratan txirrindulariak animatzen eta argazkiak egiten. Itzuli handiak, klasikoak, Euskal Herriko

lasterketak... ondo baino hobeto ezagutzen ditu, eta euskal txirrindularitzaren artxibo aparta osatzen ari da apurka-apurka.

Zikliamatore.com webgunean jartzen ditu ikusgai Iñaki Azanzak egin eta biltzen dituen txirrindularitzako argazkiak. Gaur egungo lasterketak zein garai batekoak aurki daitezke bertan. Lasterka koloretsuak, Euskaltelen laranja kolorea jasotzen duten argazkiak edo garai bateko Kas ekipoarenak topatu daitezke bertan. Bilatzen hasita, Iñaki Azanza gazte-gazte bat ere ikusiko duzue bizikleta gainean, 1978. urtean Aretxabaletan jokaturako lasterketa batean.

an naiz. Gainera, argazkilari horietako baten alabak, Jeronimo Ortiz ordiziarrarenak, behin komentatu zidan zelan ganbaran bazituen aitaren argazkien negatiboak. Hara joan nintzen, eta batu, garbitu eta digitalizatu egin nituen. Sekulako argazkiak zeuden ganbara hartan!

Ordiziako lasterketa aipatzen duzu behin eta berriro. Laster beteko da txirrindularitza proba horren mendeurrena ere. Goierriko txirrindulari eta zaleentzat oso esanguratsua da. Une honetan informazio hori guztia biltzen ari zara, ezta?

Ordiziako lasterketa 1922an egin zen lehen aldiz. Aurten 95. edizioa egingo da. Eta 2023an



Aurreko orrialdean, Iñaki Azanzak berak 1978. urtean Tourrean jasotako unea. Lerroon ezkerrean, Elorriaga 1978ko Tourrean. Eskuinean, zaleak Amets Txurruka aupatzen 2008ko edizioan.
Iñaki AZANZA |
www.ziklimate.com



ospatuko da mendeurrena. Argazkiekin hasi eta historia arakatzen hasi nintzen, apurka harrapatu egiten zaitu eta sekulako datu bankua osatzen joan naiz. Hemerroteketara jo eta dokumentazio ugari biltzen joan naiz; zerbait polita egingo dugu mendeurrenerako.

Ordiziako probaren historia-tik ulertu al daiteke euskal txirrindularitzaren historia eta gure zaletasunarena?

Harreman zuzena dauka. Ez hori bakarrik, txirrindularitza proba hau ikertzen eta orduko argazki eta egunkarietako albisteak irakurtzen konturatu naiz gure herriaren historia zelakoa izan den ulertzeko ere baliagarria dela; maila sozialean, politikoan, ekonomikoan eta jendearen ohiturak aztertzeke garaian. Arreta jartzea da, eta informazioa lotzen joatea.

Kirol mailan gorabehera asko izan ditu probak, oro har Euskal Herri mailan txirrindulari-

tzak izan dituen antzera. Lasterketaren maila eta garaian garaiko egoera sozioekonomikoaren arteko harremana ere agerian jartzen du Ordiziako probak. Garai batean sekulako txirrindulariak eta figurak etortzen ziren, eta, aldiz, beste sasoi batzuetan, ez, ez zelako posible horiek gonbidatzea. Garrantzitsuena iraun izana da; oraindik ere proba hor daukagu. Euskal Herrian txirrindulari proba asko galdu dira, azkenerako ekonomikoki itota.

Tourra hasi da eta berriro joateko asmoa duzu. Nola bizi dituzu joan aurreko uneak? Nola prestatzen duzu lasterketa bera zaletu eta argazkilarri moduan?

Denboraren poderioz Frantziako Tourra ez da jada niretzat karrera garrantzitsuena; urtean zehar lasterketa asko jarraitzen ditut, eta nolabait ezberdina da. Egun maleta ia beti dut prest, urrian dagoeneko ja-

kiten dugu zeintzuk izango diren etapak eta informazio gehiena eskura izaten dugu. Eguna noiz helduko zain egon eta joan. Aurten bakarrik noa, eta han lagunekin elkartuko naiz. Azken hamabost urteotan lasterketan akreditatuta egon naiz argazkiak egiteko, baina lasaia goa noa oraingoan. Zaletu bat gehiago izango naiz.

Tourra sekulako lasterketa da, baina Giroa ere ez da makala, ezta?

Tourra Tourra da, daukan historia eta nazioartean duen oihartzun mediatikoa itzela da. Probarik garrantzitsuena da dudarik gabe, baina Giroa sei urte geroago hasi arren, egun askoz erromantikoagoa da niretzat txirrindulari zalearen ikuspegitik. Tourra gaur egun parke tematiko bat bilakatu da. Duela berrogei urte bizi genuenaren eta egun ikusten dugunaren artean ez dago inolako zerikusirik. *Souvenir*

bat da; Disneylandiara joango balira bezala bizi dute askok. Giroan, ordea, zaletasuna usaindu egiten da; italiarrak oso txirrindularitza zaleak dira. Giroa ikustera doan jendearen %90 txirrindularitza maite duen jendea da. Zerbait berezia duela esango nuke, poesia ezberdin bat dauka Giroak.

Eta euskal zalegoak nolako bilakaera izan du urte haue-tan guztietan?

Munduko zalegorik onenetakoa dela esan daiteke, nahiz eta onenak garela pentsatzen dugun sarritan. Orain gauza asko entzuten dira euskal zaleei buruz, baina azpimarratuko nuke txirrindularitzaren historia osoan zehar izan dela zaletasun hori. Aurreko mendeko 20ko hamarkadako narrazioak eta argazkiak ikusi eta txunditzekoa da. Euskal Herrian txirrindularitza maite dugu txirrindularitza sortu zenetik, bizikleta marka handiak izan

ditugu, antolatzaile oso onak... Agian erresistentzia kirolak gehiago maite ditugulako da. Ez dakit zergatik, baina beti izan gara txirrindularitza maite izan duen herria.

Ordiziatik Larrabetzura etorriko zara bizitzera. Txirrindularitzak batzen ditu bi herriok, beharbada.

Larrabetzu, Zaldibia eta Itsasondorekin batera, demografikoki txirrindulari profesional gehien eman dituzten herriak dira. Atentzioa eman izan dit beti horrek. Ordizia, adibidez, txirrindularitzarekin oso lotua egon da, karrerak egon dira, txirrindulari eskola ere bai, baina profesional gutxi eman ditu. Itsasondo, txikiagoa izanik, txirrindulari gehiago eman dituen herria izan da. Larrabetzun ere hori aipatuko nuke nik: Loroño, Aspuru eta Artetxe eman ditu. Pozik biziko naiz bertan, eta bizikleta alboan izango dut.

«Snorkel»

Itzea Urkizu
Arsuaga

Uretatik irten eta eguzkitan lehortu. Ba al da sentsazio hobetik? Mediterraneoko hondartzan batean nago, etxe eta ontzi zuriek inguratzen naute, eta iritzi zutabe hau josteko ideiak biltzeari ekin behar diodala erabaki dut.

Aldamenean haur bat, bainujantzia nola-hala atondu nahian; ur ertzean bikote bat musuka; eta, atzerago, neskato bat leiho erraldoi diruditen *snorkel* egiteko antiojoak jantzita. Ezinbestean, pentsatu dut *snorkel* egitearena izan litekeela testuari –eta nire oporrei– heltzeko metafora bat; asteko zein egun den ez dakizunean exijitu daitekeen

metaforen mailan, noski. Depilazioaren, gorputz idealen eta norbere borroka politikoaren arteko talkaren motxilarakin batera, hori ere izaten baita uda: burua izatea denbora existitzen ez den mundu paralelo batean, baina hodi bat izatea, beti, errutinaren kea etengabe arnasteko.

Eta horrela, *snorkel* eginez, ozpindu naiz New Yorkeko zine zuzendariari gipuzkoarron hiriburuan miazkatu dioten alfonbra gorriarekin. Eta hiri horretako ordezkari politikoei aste berean aurkeztu duten kanpainarekin: indarkeria matxistaren aurkakoa omen den baina indarkeria linguistikoa betiko-

tzen duenarekin. Petraldu naiz, aktore-kazetari eztabaidatik, feminismo ona eta txarra hizpidera eramane zituen protagonistetako batek zine zuzendari hori publikoki txalotu duelako. Bai, bere alabaordea bortxatzen zuen hori bera. Eta Manresa, eta enegarren “Manada”, eta Iruñea, eta udarik ez duen patriarkatu hilkorra.

Banoa segituan hondartza ertzeko dendara, *snorkel* egiteko betaurreko batzuen bila. Gure plastiko eta hondakinek uzten badidate behintzat, arnasari eutsiko diot segundo batzuez, denbora existitzen ez den urpeko mundu horretan. •

Bortxatzaileen defendatzailea, sexu irakasle

Koldo Sagasti

Cadizeko Unibertsitateak erretiratu egin du Agustin Martinez Berra legelariaren hitzaldia udako ikastaroetako mintegi batetik. “La Manada” izeneko sexu erasotzaileen taldeko kideen defentsako abokatua sexualitateari buruzko mahai inguru batean zen parte hartzekoa, aditu moduan; eta azken orduan norbaitek, auzo lotsaz-edo, erabaki du bere mintzaldia egitarautik kentzea.

Polemikaren iturria, baina, zera izan da, nor izan ote den letraduaren parte hartzea zentsuratu duena, unibertsitateko errektorea ala Madrilgo Gobernuako ministroen bat. Ez da falta izan, gainera, legegizona defendatu duenik, argu-

diatuz ezin zaiola betorik jarri bere jardun profesionalagatik, zuzenbide estatu batean bortxatzaileek ere defentsa legalerako eskubidea dutela. Ez dut ukatuko inputatu orok lege babesa behar duenik, baina Martinez baliogabetzen duena ez da legelari lanetan aritu izana, baizik eta bortxatzaileen defentsarako baliatutako estrategia. Sexu erasotzaileen defendatzaileak biktimaren sinesgarritasuna kokolan jartzean oinarritu du bere defentsa estrategia. Telebista kate batetik bestera ibili da bortxatua larrutzen, epaiketaren jomugan jartzen. Argudiatu izan du neskaren jarrera probokatzailea izan zela, eta bortxaketaren ondoren bere bizimodua birbideratzen saiatu iza-

nak bere testigantza indargabetzen duela. Funtsean, biktima bilakatu nahi izan du pairatutako erasoaren errudun; bigarren aldiz bortxatu.

Martinez terrorismo matxistaren gorazarre egiten ibili da hedabide guztietan, eta horrek ezgaitu egin beharko luke edozein jardura publikorako; areago apestatu bihurtu beharko luke. Polemikaren gakoak, berriz, ez luke izan behar nork jarri dion betoa letraduari; baizik eta unibertsitatean, jakinduriaren tenpluan, nor izan ote den sexualitateari buruzko mintegi batean bortxaketaren apologeta baten lekukotasuna interesgarria izan zitekeela okurritu zaion txoriburua. •



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexua gara eta ez sexuaren biktimak

Badirudi sexuaz mintzo bagara, gizonen gozamenaz eta emakumeen sufrimenduaz ari gara. Egia da bortxaketen eta sexu askatasunaren aurkako delitu gehienak emakumeek sufritzen dituztela. Kasu gutxi batzuetan, gizonak. Matxismoak, batez ere baina ez bakarrik, emakumei egiten dielako eraso. Hala ere, komunikabide patriarkaletan, gizonetako bada bortxatua, ez da “sexu” terminoa aipatzen. Aldiz, emakumea bada, “sexu erasoaz” hitz egiten da. Hau da, emakumeen kasuan, “sexu” hitza azpimarratzen da. Hortaz, emakumeen bortxaketak sexuarekin nahasten dira, eta, gizonenak, delituekin lotzen dira.

Errealitate horrek, bi arazo mahai gainean jartzen ditu. Alde batetik, gizonen ahotsak sinesgarritasun gehiago duela eta gizonen baietza adostasunean oinarritzen dela. Hots, eraso bat sufritzean, gizonaren testigantzarekin nahikoa da gertatutakolari bortxaketa etiketa jartzeko eta sexuarekin ez nahasteko. Bestetik, erasoak jasan duena emakumea baldin bada, emakumezkoaren baietza baimenean oinarritzen da eta bere testigantza gutxietsi egiten da. Ondorioz, bortxaketaz baino baimendu gabeko sexu harremanez hitz egiten da eta sexua, emakumeentzat, leku arriskutsu bilakatzen da.

Sexu harremanak ez dira baimentzen, adostu baizik, komunikazioaren bidez eta errespetuan oinarrituz. Horrekin batera, sexuen arteko adostasunak eta topaketak, sinergikoak eta erotikokoak izan daitezke. Aldiz, sexuen arteko desadostasunak eta bat ez etortzeak, errealitatean, ezin dira inolaz ere erotikokoak izan. Baina, gure gizartean, emakumeek sufritzen di-

tuzten sexu erasoak erotizatzen jarraitzen dugu. Azken finean, gure esperientziak eta bizipenak aintzat hartzen ez direlako eta bortxatu daitezkeen eta ezin daitezkeen emakumeen sailkapena existitzen delako. Izan ere, “benetako emakumea” kategoria ez dutenek eraso egin dietela salatzen dutenean, prostitutek kasu, bortxaketa eman dela ezeztatzen da.

Horrez gain, sexua gizonentzat leku seguru eta gozagarria da, emakumeentzat, berriz, kontrakoa. Sexua gara eta ez sexuaren biktimak. Eta ikuspegi hori transformatu eta parekatu arte, aurreko irakurketa guztia ezingo dugu aldatu. Emakumeak pertsonak eta sexudunak gara behingoz aitortu beharra dago, trantsizioarekin amaitu, alegia. Izan ere, gure gorputzak plazererako diseinatuta daude, gozamina atsegin dugu, desioak eduki eta adierazten ditugu, negoziatzeko beharra dugu

eta azken hori, bakarrik, adostasunean eta parekotasunean eman daiteke. Horretarako, sexuan, sexuen heziketa funtsezkoa da. Euskal ikasleriarentzat, kalitatezko sexu hezkuntza programa integralak eta egonkorrak bermatzea, hain zuzen. Ikuspegi pedagogikoa garen sexuan oinarrituz eta identitateak eta biografiak zentroan kokatuz. Hots, sexua, berdintasuna eta aniztasuna bezala, sustatu beharreko balio gisa sozializatuz. Funtsean, sexuen arteko diferentziak eta elkarbizitza kudeatzeko baliabideak eskaintzea eta emakumeen sexualitatea gozamenarekin eta segurtasunarekin lotzea.

Beraz, Skolae proiektua babestu eta goraipatzeaz gain, ukalezina da Euskal Autonomi Erkidegoan ere beharrezkoa dela. Hau da, ordezkari politikoei eta, zehazki, hezkuntza departamentuari, exijitzeko garaia iritsi da. Sexua ezin delako politikarekin azaldu, baina defendatu daiteke. •



Nafarroako Skolae hezkidetza programa babesteko mobilizazioa.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



Txema ORMAZABAL

1983KO ERREENTERIAKO TXUPINAZOA POLIZIAK BOTA ZUEN TIROKA

1983. urteko uztailaren 21a zen eta jende andana ari zen Erreterria erdialdera gerturatzen, jaien hasiera iragarriko zuen txupinazoa ikusteko asmoz. Era berean, Poliziaren furgonetek eta tanketek hartua zuten herriaren sarrera. Txupinazora gerturatu zirenen artean kalez jantzitako hirurogei bat polizia zeuden, eskuan egunkariak hartuta. Egunkari horietan ezkutatuta zituzten borrak, makilak eta kateak, geroago txupinazoaren zain zeuden herritarren kontra modu bortitzean eta indiskriminatuan erabili zituztenak. Dozenaka zauritu eragin zituzten, garaiko komunikabideek jaso zutenez. Urte hartako jaiak bertan behera geratu ziren. Goiko argazkiak poliziak udaletxeko balkoitik tiroka hasi ziren unea jasotzen du. Argazkia Txema Ormazabal donostiarrak egin zuen, hainbat komunikabiderek kolaboratzen zuen argazkilariak, "Zeruko Argia", "Egin", "ERE", "Interviu", "La voz de Euskadi", "Punto y Hora de Euskal Herria" eta "Euskadi Sioux" agerariekin, besteren artean.



GAUR8 ireki gure leihoa

